

Nafar karia



Eugi eta Beloki, pilotaren etorkizuna

Eskuz binakako pilota txapelketaren bikoterik erakargarriena da, baina bitan bi porrot izan ditu. Pasa den igandean, lehendabiziko aldiz, txistuak jo zizkieten Labriteko zaletuek, baina hala ere ez dute galdu konfidantza haien jokoan. Izan ere, beraiek dira hurrengo urteetarako txapeldunak.

Oso ezberdinak dira bai jokoaz nola izakeraz, baina denek ikusi nahi zuten elkarrekin, bikoteka. Afizionatuetan dena irabazi ondoren, profesionalara eman duten urratsa pilotak sekulan ezagutu ez duen zalaparta eta jakinminarekin gertatu zen, eta nafar zaletuen begiko pilotariak dira, nahiz eta haiek pribilegiatuak ez direla azpimarratu. Banakakoak dute gustuko, baina, oraindik, urrunegi gelditzen da txapela, batez ere Eugiendako. Bitartean, binakakoan ikustean konforma gaitezten.



Metropoli forala



FELIPE RIUS

Exekututako enpresa-erretiroak egiten dituela dio berreroak, horrela ziur dago haien arimek ez dutela ihes egingen, koadro baten mugetan ixten ditu badaezpada ere, heriotzaren korredorean itxoin behar izan duten denbora guztia eta elektrodoen deskarga nahikoa izan ez bailiran. Preso batek, berriz, aulkian esertzen direnean barrenean ezer geratzen ez zaien txorimaloak besterik ez direla azaltzen du eta orduan are krudelagoa iruditzen zaizu botoia zapaltzen duen funtzionariaren vudu artistikoa.

Heriotzaren korredoreko biztanleak beren iraganari lotuta bizi dira, esperantzarik gabeko toki beteetan aurkitzen dira, etorkizuna ondoko gelan bukatzen da, eta gainera, azken momentuan, metalezko kaskoa jarri eta besoak lotzen dizkieten bitartean, ihes egiteko azken posibilitatea lapurtu nahi dien espiritistarentzat posatu behar dute. Agian ez dago izpiriturik, gizakiak ez du arimarik eta berreroa alferrik gastatzen ari da pintura tuboak eta koadroak. Edo, zeinek daki, beharbada egia da izpiritua entzerraturik geratzen dela eta koadroa beste kartzela bat bihurtzen dela, betirako presondegia.

Beste erreportai batean hiltzaile multiple gehienak pertsona azkarrak direla diote psikiatrek eta adituek. Batzuk nobelistak egin dira, eta hori betiko ahanzturan ez erortzeko bide bakarretako bat izan daiteke. Beren biktimek bizirik diraute mendeku elektrikoa eskatzen duten familiarakoengan eta lagunengan, eta ziur aski hiltzaileen gogoan ere. Ez dakit zein izanen den txispazoaren aurretik burura etorriko zaien azken irudia edo pentsamendua. Beharbada beren arima betirako pintura batean hertsirik geratuko dela jakingo du orduko eta inoiz maite izan zuen hildakoren baten aurpegi goxoa ikusi beharrean, zulo beltz batean sartuko da inoiz ez ateratzeko. Eta berreroak parre egingen du.

Gure aukerak

Arburuko baseliza

ERAKUSKETAK



Mara Reguilon artistaren lanak ikusgai daude Iruñeko Aurrezki Kutxa Munizipalak Rodeznoko Kontea kalean duen aretoan. Bilbon jaiotako artista honen obra ikusteko lanegunetan 19.30etatik 21.00etara, eta jai egunetan, 12.30etatik 14.00etarako ordutegia dute. Otsailaren 21a arte iraungo du.

Itziar Purroy artistaren erakusketa zabalik dago datorren 21a arte. Margolari honen lanak ikusteko Lankide Aurrezki kutxak Sarasate ibilbidean duen aretoara jo behar da. Lanegunetan, 18.30etatik 20.30etara, eta jaiegunetan, 12.00etatik 14.00etara dago zabalik.

BERTSO SAIOAK

Andoni Egaña eta Angel Mari Peñagarikano bertsolariak arituko dira heldu den igandean, hilak 14 Arantzan, bertso-bazkarian.

IKASTAROAK




Fondoko eski ikastaroak egin daitezke Aralarren abenduaren 1etik martxoaren 28a bitartean, Larraungo udalak antolatutik. Ordutegia 9.30etatik 13.30etara izango da. Bi modalitate daude, 'Aste Zuria' eskola-koentzat, 4.800 pezetatik, eta 'Bi asteburu' helduentzat, materia-ekin 6.700 pezetatik eta mate-

Elurra falta izugarria dela eta —ez da ahaztu behar urtarrila inoizko hilerik sikuena izan dela Nafarroan—, eski eta elurzaleek jai daukate aurten, gauzak asko aldatzen ez badira, behintzat. Zaraitzu eta Erronkarikoak ere kexu eta kezkatu dira, urte osoko garairik aproposena izaten baita hau bertaraino jendea hurbil da.

Hala ez bada ere, mendia dugu oraindik aukeran, eta asteburu honetarako nahiko ezezagun den zonaldea hartu dugu ibilbide: Uskartzeko, Galoze eta ingurukoak, alegia.

Ibilbidea Galozetik bertatik ateratzen da, eta Itzalko errepidea hartuta, segituan utzi eta ezkerrean doan pista batetik abiatzen gara, eta gero eskuinera doan beste bidexkatik, gora. Horrek eramango gaitu, malda polit baten bidez, Arburuko baselizara. Hor- tik ez dago arazorik, bideberria oso nabaria baita, baina adi ibili behar dugu, ezkeraldera geldi-

rialik gabe 4.800etan. Izena eman daiteke Lekunberriko Kirol Bulegoan.



tzen diren harkaitzetatik ugatza ikustea baitago, eta baita belatz handia edo beste espezie babes- tuak ere.

Ondoren, ibilbidean, arte eta

jatorrizko begetazioaren arrast- roak antzeman daitezke, eta be- raien artean, espezie askotako hondarrak ere. Izan ere, natura- zaleendako toki aproposa baita.

ZINEMA



Fievel va al Oeste pelikula ikusgai izango da bihar larunba- ta, hilak 13, eta igandean, hilak 14, Tafallako Cinema Español aretoan. Kultur Patronatoak anto- latutik, emanaldiak arratsal-

MUSIKA



Barricada taldeak joko du bihar larunbata, hilak 13 Lizarrako On- cineda institutuan, bertako 'Fli- tter' taldearekin batera. Kontzer- tua gaueko 22etan hasiko da eta

sarrerak 1.500 eta 1.200 bitarte salduko dira.

HITZALDIAK



Hirugarren adinerako baliabidei buruz prestatu den zikloa- ren barruan zahar etxean lagun- tza zerbitzuari buruz mintzaldia izango da gaur ostirala, Bakaiku- ko udaletxean. Mintzaldia arrat- saldeko 19.30etan hasiko da eta

bertan Eurne Razkin Irurtzungo Gizarte Zerbitzuko arituko da. Hurrengo astelehenean, otsailak 15, hirugarren adineko egoitzei buruz mintzaldia izango da Liza- rragako kontzejuan, arratsaldeko 19etan eta asteartean, hilak 16, jubilaziorako prestaketaz arituko da Presen Goñi Etxarri Aranazko udaletxean, arratsaldeko 17.30etatik aurrera. Zikloa Etxarri Aranazko zonaldearen gi- zarte Zerbitzuak anoltau du, Ju- bilatuen Elkartean laguntzaz.

BESTELAKOAK



Orhi-Abodira irteera antolat- u du heldu den otsailak 14rako Sa- kanako Mendizaleak elkateak. Ibilaldia autobusez Olaztitik abiatuko da goizeko seiretan. Helduek 900 pezeta ordaindu beharko dituzte irteeran parte hartzeko, eta hamasei urte baino gutxiago dituzten gaztetxoek 400. Izena eman nahi baduzu dei ezazu Olaztiko 56 32 33 telefo- nora.

Ume eta helduentzako maskara eta mozerro taile- rra irekita izanen da Iruñeko Al- de Zaharreko Auzo Elkartean (Aldapa kalean) otsailak 16, 17 eta 18an, arratsaldeko bostetatik aurrera. Iruñeko alde Zaharreko Kultura Koordinakundeak ihau- teriak direla eta ekintza egitarau mardula prestatu du, eta aipatu- tako tailerraz gain, otsailaren 17a arte beste mozerro tailerra izanen da AEKren Iruñezar euskalte- gian (kale Nagusian).

ERRAN DUTE

Ez dago garbi Axular ikastolan lanak egin behar diren ala ez».

Santiago Cervera
Iruñeko udalaren Ordezko Zinegotzia

«Partaidetza lorpen de- mokratiko bat da, onenen aukeraketaren gainean da- goena».

Celia Amoros
Filosofian Katedraduna

«Kastejon nekez moldatuko da Korellarekin».


Juan Jose Paredes
Kastejongo alkatea

«Cocoren sarrera berna puskatzera joan zen»

Miguel Merino
Osasunako jokalaria

ASTEKO PERTSONAIK


Gregorio Clavero



Barañaingo alkate ohia

Barañainen kulebroi politikoak behar bezalako amaiera izan du azkenean, eta alkateak dimi- sioa aurkeztu ondoren, talde so- zialista talde mistoan barreiaturik, UPNk ditu orain alkatez lortzeko aukera gehien. Clavero- k ederki asmatutako trikimailua- ren bidez, zentsura mozioa saihestez gain, bere taldekide ohiek aurkeztu behar zuten hau- tagai berriari —Ollokiri— ere atek itxi dizkio. Orain alkatea aukeratzeko orduan ze taldek duen aukera gehien da erabaki- tzekoa, baina bitartean EAko Al- berto Ardanaz da alkatea. Esan bezala, kulebroia.

Chechu Villaldea



Mepamsako jokalaria

Talde antoniarraren aurtengo ibilbidea kaskar samarra izanda ere, ezin uka fitxaketa ederra egin zuela Tajadurak zen- tralarekin. Izan ere, Valero Ribe- rak zuzentzen duen Espainiako selekzioarako aukeratua lehenda- bizikoa izan baita. Horretarako, Mepamsak berrogei eguneko etenaldia izango du eta ondoren, hilabete eskasean zazpi partidu jokatu behar izango ditu. Ordo- ñezen atzetik, beraz, lehen selek- zioan jokatzen duen lehendabizi- ko antoniarra Suediako mundia- lean arituko da, eta ez aukian, hain segur. Ondoa dituenek bere maila emango balute...

Jesus Aizpun



UPNko burua

Pasa den asteburuan burutu zen Iruñean UPNren Kongresu erabakiorra, korda ezberdinen arteko lehiaren nondik norakoa erabakitzeke. Garaile atera zen, nabarmen, Alli lehendakaria, eta Jesus Aizpunek ere bere betiko ametsari eutsi zion: partidua el- kartuta eusteari, alegia. Hala ere, oso esanguratsua izan zen klau- suran bota zuen mintzaldia, Allik frankotan azaldutako irizpide guztiak, banan banan, gaitzetsi baitzuten. Ikustekoa zen Sanzen aurpegia Aizpunek hitz egiten zuen bitartean, eta 'España' hitza hamaika aldiz esan ez bazuen, ez zuen behin ere aipatu.

ADI !

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Larunbatetan 9etatik 10eta- ra... Xinguli Mangulu hau- rendako saioa.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00eta- ra... Karakola segi hola gaz- teendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Astean zehar 20.30etatik 22.30etara... Zuri eta Beltz El- karrizketak, erreportaiak, mu- sika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astea zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elka- rrizketak.

Baztan

Aurreneko kiwi uzta dendetan

A. UNANUE / ELIZONDO

Bost urteko lanak fruitua eman du azkenean. Baztanen eta Malerrek anurreneko kiwi uzta jaso dute, uzta oparoa gainera, eta heldu den astetik aitzina dendetan izango ditugu, piperrak eta zainzuriak bezain bertakoak.

Miguel Mindegia Kiwi Baztango ordezkaria lehen semea edo alaba erditutako ama baino harroago dago. Eta arrazoiak soberan ditu, kiwiak «lodi-lodiak eta zapore onekoak» atera zaizkie eta. Emaizta apartak, Mindegiaren ustez, Baztan inguruak eskaintzen dituen ezaugarri aproposi zor dizkiete. Izan ere, behar den guztia eskaintzen du: ura, eguraldi epela eta hare lurra. Dena ez du naturak jarri, ordea. Baztandarrek Zeeland Berriko tekniko baten laguntza izan dute gauzak behar bezala egiteko.

Jakina da Australia eta Zeeland Berri aspaldi galdu zutela kiwiaren eskusibotasuna eta gaur egun lurralde anitzetakoak aurki ditzakegula dendetan. Gehienak, Mindegiaren arabera, Italiatik dagoz. Hala ere, baztandarrak ez dio beldurrik horien konkurrentziari: «Gure kiwia arras diferentea da. Kalitatearen apustua egin dugu. Ez dugu inolako tratamendurik erabili eta hori fruituan nabaritzen da, kolorean eta zaporean». Mindegiak nabarmendu duenez, salgai dauden kiwiak irailean jasotakoak dira. Bantangoak, azaroaren



amaieran, «horixe delako sasoi egokiena. Puntu-puntu jaso genituen, beharrezko azukre graduekin».

Mindegiak argitu digunez, kiwia gogor dagoela jasotzen dute eta bizpahiru hilabete behar ditu heldutasun puntu aproposa izateko. Iaz arazoren bat izan zuten, landare gazteak hormatu zitzaizkien eta. Aurtengo uzta, tajuzko aurrena, oso oparoa izan da hala ere. Landatutako 30 hektareek 250.000 kilo eman dituzte. Horiek Nafarroan bertan, Bilbon, Donostian eta Holandan merkaturatuko dituzte. Holandarrek

uzta osoa erosi nahi die baztandarrei, baina hauek nahia-go dute hainbat lekutan banatzea.

Kiwiaren inguruan 14 nekazari dabilta Baztanen eta Malerrek. Prezioak azkenaldian behera egin duen arren, beraien lanaren errentagarritasunean fedea dute horiek, kalitatea nahi duen jendea pixka bat gehiago ordaintzeko prest dagoelakoan. Horrela izan dadila ba, nekazaritza lur jota dagoen honetan produktuek bertakoan sostengua behar dute eta.



Baztango kiwiak.



TAFALLAko ganadu feriak sekulako arrakasta eta giro ona izan du aurren, bertakoek kontatu digutenez. Asteartea izan zen egunik handiena. Erosleak Euskal Herriko eta Espainiako hainbat herritatik etorri ziren. Usadioa denez, pottokak izan ziren aberrik preziatuenak. Milatik gora saldu ziren eta prezioak iazkoen parean ibili ziren. Ganaduaz gain, makinak eta fruta arbolak egon ziren salgai. Feria larunbatean hasi zen; igandean egindako artisautza erakusketak erantzun ona izan zuen. Astelehenean ere giroak ez zuen behera egin eta indarrez eutsi zioten. Pentsatzekoa da aurtengo edizioarekin Carlos III. erregeak Tafallako hiriarri duela 474 urte baimendutako azoka betirako berreskuratu dela.

Bigarren txapela ere Tafallak eskuratu du, bertako kultur elkarteek zantzar taldea osatu baitute, aurrerantzean egingo dituzten jaiak alaitzeko. Gastuei aurre egiteko asmoz, pegatinak eta 500 edota 200 pezetako bonoak jarri dituzte salmentan. Ekimena honako hauek bultzatu dute: Tafallako peñek, Altaffaylla kultur taldeak, ikastolak, AEK-k, Olenzeroren batzordeak, dantza taldeak eta Turrubal herri animazio elkarteak.



BARAÑAINgo Udala sarriegi agertzen ari da atal honetan, baina ez du gutxiago merezi, halako ikuskizun penagarria eskaintzen ari da eta. Gregorio Clavero alkate sozialistak, ezinbestez, kargua utzi zuen asteartean, oposizioko alderdiak bere aurkako zentsura mozioa prestatzen ari zirela jakitean. Hala ere, eta nahiz eta alderdiko zuzendaritzak hasieratik kontrakoa eskatu zion, zinegotzi karguari eutsi dio. Oraingoz Alberto Ardanaz Eusko Alkartasunakoak hartu du alkatetza. Berari dagokio, beraz, alkate berriaren hautaketa antolatzea. Ez du lan makala izango, egoera zeharo nahasia da eta. Kaltetuak, ohi denez, barañaindarrak izango dira, alderdiaren tirabiren ondorioak Udalaren eguneroko funtzionamenduan igertzen delako. Eta ez onerako, noski.

LESAKAKo Agiña mendian kokatuta dagoen Jorge Oteizaren eskulturari bigarren aldiz eraso diote Aralar Komando Kulturala izenaren atzean ezkututzen direnek. Jorge Oteiza Fundazioak zein Lesakako alkateak ekintza gaitzetsi dute.

Altsasu

Komite Internazionalisten jardunaldiak

ALTSASU

Komite Internazionalistek Altsasu aukeratu dute aurren urteroko elkartasun jardunaldiak egiteko. Jardunaldiek ehun lagunetik gora bildu zuten joan zen asteburuan. Komiteetako partaideez gain, beste hainbat erakunde eta taldeetako ordezkariak hartu zuten parte.

Hiru egunez, elkartasun ekintzak merezi ditzatekeen gaiak aztertu zituzten. Hala nola, mundu zabaleko armaden eragina eztabaidatu zuten, ezberdintasuna eta injustizia areagotzen duten aldetik.

Harreman desorekatuak ere aipagai izan ziren, herri aurreratu eta atzeratuen artekoak zein herri bakoitzaren baitan ematen direnak.

Era berean, Madrilko eta elkarte autonomoetako gobernuen

jarduna baloratu zuten Altsasun bildutakoek, industria eta kanpo politiken ingurukoa gehienbat.

Aurrera begira, Komite Internazionalistek gaurdaino bultzatu izan dituzten elkartasun lanei eustea erabaki zen, eta Nikaragua, El Salvador, Kuba eta Palestinako herriei arreta berezia eskaintzearen premia azpimarratu zen, Geure gizarteari dagokionez, komenigarri jo zuten lana arloka egitea, oinarritzat nazioarteko arazoan azterketa hartuta.


Azkenik, elkartasun ekintzetarako bide aproposena internazionalismoa dela nabarmendu zuten Komiteetako ordezkariak. Hori dela eta, baikor eta orain arte egindakoari segitzeko asmoz agertu ziren Altsasun bildutakoak.



Ehun lagunetik gora bildu zen Altsasun.



Bien artean eman diote pilotari aspaldidanik faltan zuena: emozioa, izen berriak eta ikusmina jokatzeko duten pilotaleku orotan. Dohain izugarriak eta gogo etengabeak —«pilotarako bizi dira» dio Ibarra entrentzaileak—, askoren ustetan denbora gutxi barruko txapeldunak izateko aukera guztiak dituzte bi gazte nafar hauek. Oso ongi moldatzen dira elkarrekin, baina arrunt ezberdinak dira. Ruben Beloki patxada eta estiloaren irudia da, eta askok Galarzarekin konparatu dute dagoeneko. Patxi Eugi, ordea, nerbioa eta gogoen ispilua dela esan daiteke. Oso estilo bereziaren jabe, aurrealdean jokaldiak ez bukatzea leporatzen diote, baina pilotalekuak betetzen dituzten horietakoa da, alde eta kontrako iritziak zaku-kada sortzen dituztenetakoa.



LEIRE ARZUAGA

«Gauza handiak egiteko gai gara»

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

Luze hitz egin da pilotak azken bi urteotan eman dituen harribitxi hauei buruz. Patxi Eugi Olinpiadetara joateko zuen aukera baztertu eta bete-betean onartu zuen enpresek egin zioten eskaintza 19 urte besterik ez zituenean. Afizionatuetan irabazi zitezkeen guztia irabazita, haize bilduaren gisan sartu zen profesionaletara, eta hasiera ezin hobea izan zitzaion: San Fermin profesionalendako trofeoa irabazi baitzuen.

Bitartean, bere atzetik 17 urteko beste mutikote burlatarrak bereganatua zuen aditu eta zale-tuen interesak. Berehala zabaldu zen Galarzaren indarra zuela, eta izugarriko sendotasuna. Hala-ber, bere adinarekin erakusten zuen heldutasunak harrizten zuen gehien, baina berari egokitu zitzaion Olinpiadetara joatea, neurri batean berak erabakita.

PATXADA ETA NERBIOA Eugi eta Beloki arras desberdinak dira ez bakarrik jokoa, baita hitz egin eta izateko eran.

Ruben, gazteagoa izanagatik, zuhurra eta lasaigoa da, sendoago gorputzez eta izatez. Hiritarra. Burlatarra. Kantxan ez zaio keinu azkarrik antzematen, eta dena da kamera motela: presarik ez, atsedetik ez. Pilotakada izugarriak jauritzen ditu, baina neurtuak, alde zuzenetik dena buruan balu bezala. Ez du ez oihurik ez biraorik botatzen. Eta botatzen badu, bere golkora.

Patxi nerbio hutsa da. Herri-tarragoa. Agoizkoa. Bere jokoak lasai egoten ez dakienaren irudia ematen du. Dagoeneko ez dio os-

tikorik ematen pilotari huts egiten duenean —profesionaltasunaren marka?—, baina oraindik besoak altxatu eta mota guztietako imintzioak egiten ditu berak nahi zuen bi pareta txapapera joaten zaionean. Hala ere, pilotari aparta da, zainetan eramaten baitu hori. Jendeak eserlekuetatik altxatzeko gai da, eta baita kritika gogorrenak jasotzeko gauza ere. Pasioak altxatzen dituzten horietakoa.

Eta orain biak batera, bikotetan, oraindik elkarrekin kantxan oso ongi moldatzen ez badira ere. «Patxi ni baino askoz ere nerbio-soagoa da» dio Rubenek, «ni oso lasaia bainaiz. Orduan, berak, askotan, ez du behar den lasaitasuna gordetzen. Gainera, hiru aldiz besterik ez dugu jokatu elkarrekin, eta gazteak izanik...». Eugiren ustetan, behar baino garrantzi handiagoa eman zaio bere partaidetzari. «Beste bikoteak bezalakoak gara, eta orain arte ez zaizkigu gauzak behar bezain ongi ateratu, eta kitto. Ez dago eguneroko gainean egon beharrik».

AURREAN HANDEIA Hala ere, biek ongi asko dakite zer nahi duten. «Binakako Txapelketa buruz burukorako prestaketa bezala hartzen ari naiz» dio Belokik, «hori baita gehien interesatzen zaidana». Eugik, berriz, «zerbait handia» egiteko nahia zuen binakakoan, eta oraindik gauza asko egiteko gai direla uste du.

Horretarako, aurrean dago arazoa nonbait. Orain arte jokatu duten bi partiduetan atzera jokatzen saiatu ziren, baina arerio gogorregiak topatu zituzten. «Galarza eta Zezeagaren aurka ezin da atzera jokatu» dio Belokik, «izugarri indartsuak baitira. Aurrean jokatu beharra genuen, izan ere, hor irabazten baitira partiduetan».

Bikote nafarra eta gaztea izateak etengabeko segimendua ekarri die, eta presioa ere ez dute faltan. Hala ere, kritika eta kontseiluei kaso egitea baino, beren baitan bilatzen dute soluziobidea. «Beti aditu eta jaso egiten dituzu kontseiluak» azaldu du Rubenek, «baina azkenean zuk zeuk erabakitzen duzu zer egin behar duzun. Pilotari guztiok badakigu zenbat jokatzen dugun, eta nori irabazi ahal diogun eta nori ez».

Eugi eta biok gauza handiak egiteko gai gara, baina aurrean esperientzia falta izango dugu. Hori bagenekien aurretik». Kritika gehienak Eugik jaso ditu, eta berarengan eraginik ez duela esaten badu ere, minduta dagoela antzematen zaio, arraza barruan baitarama. «Jendeak joko polito ikusi nahi du, eta ez bada ateratzen txistuka hasten da. Ez dauka neuririk. Guk ez diegu kasu handirik egiten kritikei, eta soilik konfidantza dugun jendeak esaten duenari erreparatzen diogu. Jende horrengan konfidantza izan behar baitugu».

Utziezue ikasten

ANTXON IBARRA
Entrentzaile

Eugik betidanik izan du izugarriko presioa, hogeitaz urterekin figura bat bezala pasatu zelako profesionaletara. Hori, hain zuzen ere, ez da batere ona ikasteko. Askok exigitzen zaio, eta ezin izan du errematatzen ikasi. Izugarri trebea da bi eskuekin, eta oso anbizioso, baina lasaitasuna falta zaio, tantuak bukatzen ikasteko. Patxi asko prestatzen da eta bakarrik pilotarako bizi da, baina lasaitasuna besterik ez du behar, gainontzeko guztia baitu. Lau urterdian jokatzen du izugarri, eta, nerretzat, Retegiren atzetik hobereena da. Berari irabazteko asko jokatu behar da neurri horretan, eta eskuz banaka eta binakan es-

perientzia pixka bat behar du onenetakoa izateko.

Ruben Belokik 18 urte ditu, eta hain gaztea izanik ere profesionaletara figura bezala pasatu da bera ere. Orain arte bere ibilbidea ona izan da, baina berari ere denbora eman behar zaio, kantxan lekua hartzeko. Izugarriko indarra dauka, eta fisikoki egina dago, baina denborak esango du noraino iritsi daitekeen. Faborito gisa ateratu da beti, eta hori gainditzeko burua ere oso egina behar du izan.

Oso helduak dira biak, baina ez da batere ona hain gazte izanik jende guztiak faborito egitea. Denbora behar dute —bi edo hiru urte— nora doazen ikusteko. Kondizio oso onak dituzte pilotarako, baina presioak ez die uzten pixkanaka —behar bezala— ikasten.

Bestalde, biak oso ongi moldatzen dira elkarrekin, baina Belokik asko jotzen du, eta aurrean tantuak bukatzen dakien bat behar du. Orain arte Unanue edo Ladutxerekin jokatu izan du, eta orain, Eugirekin moldatzeko denbora pixka bat behar dute, baterean eta besterean jokoak bien artean hobea egiteko.

Pilotarien etorkizuna



Ruben Beloki.



LEIRE ARZUAGA Patxi Eugi.

JOXE LACALLE

Beloki: «Retegiri dejada gutxi egingo diot»

A.B. / IRUÑEA

GALDERA.— Zer erabiltzen duzu eskuko minaren aurka?
ERANTZUNA.— Masaiari batek ematen dizkidan masaiak eta atsedean handia. Bibragailu bat eta kremak ere erabiltzen ditut.
G.— Nola lasaitzen duzu Eugi?
E.— Konfidantza emanez, eta hurrengo partidua irabazi behar dugula esanez.
G.— Zer dauka Galarzak Belokik ez daukana?
E.— Esperientzia eta kantxan egoten jakitea. Deus gehiagorik ez. Ez da gutxi, hala ere.
G.— Zein koadrotatik egingo zenioke dejada bat Retegiri?
E.— Buf! Oso, oso atzetik... baina Retegiri dejada gutxi egingo diot.
G.— Eugi eta biak pilotaren ume pribilegiatuak zarete?
E.— Ezta gutxiagorik ere. Nik bigarren mailako txapelketa jokatu behar izan nuen.
G.— Nola jokatu diozu Tolosari?
E.— Gogor eta atzera.
G.— Zer da zailagoa, errebotera jo ala dejada bat egitea?
E.— Dejada bat egitea. Jokatzeko nere erarekin naturalagoa da atzera botatzea, eta dejadarako abilezia handiagoa behar da.
G.— Gustuko duzun afizionatu bat?
E.— Beloki II.
G.— Nork irabaziko du buruz burukoa?
E.— Nere ustez, Galarzak, baina Arretxe ere oso ongi dabil, eta ni saiatuko naiz.
G.— Zein duzu txapelarik prezia-tuena?
E.— Bigarren mailako txapelketa.
G.— Zerk jartzen zaitu urduri?
E.— Kantxa barruan, gauza gutxi, baina bigarren mailako txapelketa hasi aurretik oso urduri jarri nintzen, partiduekin zer ikusi ez zuten gauzengatik.
G.— Zeren truke utziko zenuke pilota?
E.— Ezeren truke. Ez dut inoiz utziko... Akaso zorientasun hutsaren truke.

Gauza gutxi jar-tzen naute urduri kantxa barruan, baina bigarren mailako finalean oso gaizki pasatu nuen, pilota-rekin zer ikusirik ez zuten gauza batzuegatik».

RUBEN BELOKI

Hamaika dejada zabalera

Retegiren kontra lau t'erdian galtzeak min handia egin zidan, baina aurten garbitu dut zorra. Errastirena ere aurten kitatzea espero dut, lehenbailehen».

PATXI EUGI

Eugi: «Nahiago dut txapapera egin»

A.B. / IRUÑEA

GALDERA.— Zer nahiago duzu: onddoak ala usoa?
ERANTZUNA.— Usoa, onddoak txarrak egon daitezke eta.
G.— Eta atzekaldean, zein nahiago: Galarza ala Beloki?
E.— Zer erantzungo dizut, ba? Txorakeria iruditzen zait. Biak ongi baldin badabiltza...
G.— Jokaldia amaitzerakoan, zer duzu gustukoagoa: bi paretak edo zabalera dejada.
E.— Bi paretak efektiboagoak dira, pilota gehiago ateratzen da.
G.— Labritek duen alderik onena eta txarrena?
E.— Hoberena da oso ongi ezagutzen dudala, beti jokatu dudalako, baina txarrena da pilota ez dabilela leku guztietan berdin.
G.— Aldatuko zenuke Agoitz beste hiriren baten truke?
E.— Ez, ez, bat ere ez.
G.— Zeinekin ikasi duzu gehiago: Retegirekin edo Antxon Ibarrekin?
E.— Retegirekin.
G.— Zeinek egin zizun min gehien, lau t'erdikoan Retegirekin edo buruz burukoan Errastirekin?
E.— Biek egin zidaten min handia. Lau t'erdikoa nolabait garbitu egin dut aurten irabaztean, eta Errastirena aurten kittatzea espero dut. Lehenbailehen.
G.— Oraingo pilotariren bat erretiratu beharko litzateke?
E.— Nere ustez, daudenak ongi daude.
G.— Nork irabaziko du buruz burukoa?
E.— Faboritua Galarza da, eta bera aurrenean ibiliko da.
G.— Eta zuk zer egingo duzu?
E.— Saiatuko naiz ahalik gehien borroka ematen, goian egoten.
G.— Belokik animoak behar ditu?
E.— Bakoitza den bezalakoa da, eta lasaia bada, kitto. Aldatuko balitz ez litzateke Beloki izango.
G.— Hutsa egiterakoan, zer nahiago duzu, gora bota edo txapapera egin?
E.— Nahiago dut txapapera egin, zerbait egiten saiatu zarenaren seinale baita.

mintzoak

Idazleak eta irakurleak

● Berandu nator kontuarekin, lerron jatorria Durangoko Azokan baitago, baina tira. Durangoko hartan, urtez urte, halako kontsigna moduko bat edo aireratzen dute. Ez ohi dira oso kontuan hartzekoak, merkatuaren legeari baitaxtezkio beste ezeri baino gehiago; halabaina, hizpidea sor erazten dute. Aurten entzundako bat, idazle gazte berririk ez dela sortzen.

Honelakoetan onean dagoen batek sekula egin behar ko ez lukedena egin eta haintzat hartu dut esana, baita eskura ditudan datu gutxi batzuekin alderatu ere, Nafarroari dagokionean bederen.

Nekez da Nafarroako euskal idazlea zein den kolpe bakarrean erabakitzen, norberaren kasua nahikoa berezia izaten delako, baina halako tipologia bat egitea badago, literaturaz ari naizela, Nafarroan euskaraz ari direnak hartzen ditudala nik nafartzat eta ez dudala izenik paratuko —bakoitzak para ditzala— oharra eginda. Hasteko, baditugu bi hartara jarrita eta produkzio betean. Beste pare bat bestelako lanbiderik izanik ere bi liburu argitaratzearen muga gaintu duena. Lau hauek ez dute oso aspaldi hogeitamar garren urtea bete. Beste bi —berrogei ingurukoa bat, berrogeita... dabilena beste— tarteka marteka ohizko jardunari denbora ebatsi eta bere obra sendoagotzen dutenak. Azken bost-zortzi urte hauetan haien opera prima argitaratu duten beste sei, batzuen kasuan behintzat azkena izango ez dena, antza. Hamabi zenbatu ditut galdezka edo inongo bazter izkutuak iker-tzen ibili behar izan gabe. Nahita uzten ditut zerrendatik kanpo lehen lana argitaratuko ez argitaratuko dabilzanak —neronek ezagutzen dut do-zenardi bat, izen-deiturekin, gehiago dagoela seinale—, kazetaritza eta literaturaren arteko muga labainkorretan ibiltzen direnak eta laupabost itzultzaile puntako. Beraz, ba al dago idazlerik? Ez dakit. Aurrean esandako guztia badago, behintzat. Gazteak al dira? Futbolearen aritzeko ez, baina berrogei urtetan idazlea zaharra dela esateak oso ikuspegi, nola esango, olinpikoa erakusten du. Hau alde batetik. Beste alde batetik irakurleak ditugu. Nafarroako Politika Linguistikak, orain bi urte gutxi gora behera, CIES erakundeari galdeketa bat egitea eskatu zion. Han lortutako datuen arabera, nafarren % 1,5ak aitortzen zuen —lotsaturik aitortu ere, nonbait,

hain da jardun susmagarria eta ohorerik gabea—, «inoiz irakurtzen zituela euskarazko liburuskak». Bostehun mila napar bider zero koma zero bat bost berdin zazpi mila ta bostehun. Uste izatekoa da 'liburuskak' izen ilun horren atzean edotariko argitalpenak dardela; hau da, ikastoletako haurrek derrigor irakurtzen dituzten eskola-testuak, lanbidea dela eta hainbatek irakurri behar izaten

dituena, gau-eskole-takoek irakasleak aginduta irakurtzen dituztenak, etabar.

Onartzen badugu 7.500 horietatik % 20ak plazer eta gustu hutsaz irakurtzen duela —eta aitorturik % 20 hori arbitrarioa dela, arbitrarioa bezain optimista—, Nafarroako literatura-irakurleen zenbakia 1.500 inguru izango litzateke. Eguneroko eskarmentuak erakutsi ohi du nekez saltzen direla edozeren mila ale baino gehiago.

Gauzak honela, eta ontzat harturik idazle ahaleginetan dabilenen ariketa zenbaki batean laburbil daitekeela, eta zenbaki hori hirua izan daitekeela —hemen, otoi, inork ez dezala izenik jar, abstrakzio bat baita—, zatiketa egin ezker 1.500:3=500, hau da, 500 irakurleak idazle bat, horixe da atera dezakegun ondorioa.

Emaidazue jolasarekin segitzeko baimena, zenbaki horietara iristeko prozedura eta datuak guztiz diskutigarriak diren arren, eta zilegi bekit konparazio ez bakarrik gorrotagarria, baizik eta sekula egin behar ez den horietakoa egiteko: Nafarroan «inoiz gaztelerazko liburuskak irakurtzen ditut» erantzun leza-keen multzoa kontsideraturik, zenbat Sanchez Ostiz, Ramon Irigoien, Pablo Antofiana etabar beharko litzuzke gaztelerak euskararen markara iristeko? Berrehun bat? Hortxe nonbait.

Guzti honekin euskal literatura, Nafarroan gutxienez —Euskal Herria osoa haintzat hartzera antzeratsu gertatzen ez ote den susmoa dut—, zerbait behar izatekotan —izango da ez duela ezer behar edo dena behar duela uste duenik—, irakurleak behar dituela baino ez nuen esan nahi. Behialako jakintsu hark esan zuena parafraseatuz, emazkidazue ehun mila irakurle eta nahi beste nobela idatziko dizkizuet.



Gazteendako Zokoa

Amilotx mottoduna

Parus cristatus

Pagadi eta hariztietan

Beti zuhaitzetan

Intsektuak ditu gustuko



Mottodun bakartia

Txori honen markarik aipagarriena buruan duen gangarra da, lumaz osatutakoa. Horri erreparatzen diote bai izen zientifikoak, bai herriak eman dionak. Oso bakartia, negu aldera gerri txori, erregetxo, kaskabeltzak, amilotxak eta beste senideekin biltzen ohi da, baina askoz gutxiago bere espeziekoekin.

Txikia, 11-12 zentimetro bitartekoa, grisa da bularraldean eta lepoaldean marra beltzak dauzka. Intsektuak ditu elikagaia eta hosto, abar edo enborretan bilatzen ditu. Neguan bikorrak eta pinaburuekin osatzen ditu.

Gutxitan aldentzen da zuhaitzetatik, eta ez da bere ohizko eremutik mugitzen. Kabiak paratzeko, normalean, zuhaitzen enborrak erabiltzen ditu, eta 5 eta 8 arrautza bitarte erruten ditu, udaberri aldera.

Oso zabaldua dago Europako zati handi batean, baina ez da agertzen Mediterraneoan irletan, Italia, britaniar irletan ez eta Eskandinavian ere. Oso lotuta dago koniferekin, baina Nafarroan ugariagoa da pagadi eta hariztietan. Izan ere, baso hauek duten zabalpen eremuarekin lotuta daude, baina hortik kanpo ere aurki daiteke.



Heavyak

ALEXIA MARAÑON

Gizarte honetan gaizki ikusita daude. Oso erraz ezagutu daitezke: larruzko 'txupa', ile luzea, muturretakoak, elastikoak...

Orain dela zenbait urte ezagunak ziren, eta nahasten zituzten asteburu guztietan edo ia guztietan diskoteketan istiluak eragiten zituztenekin. Orain ez da horrela, zorionez, heavy-ak, orokorrean, jende lasaia da, ia beti beren giroan sartuak, beste lekuetan (diskotekak, pubs) gustora sentitzen ez direlako. Bakoitza bere kabuz, Metalika (beren gustoko musika) ahal den bolumen altuenean entzuten, beren ohizko lekua (pub, taberna...) ixten duten arte, goizeko lauak aldera. Arraroa iruditu arren, arropa heavy-an ere modak badaude.

Heavy askori gustatzen zaio etxetik dotorea ateratzea, eta ez da hori bakarrik, batzuk nahiko koketoak dira. Badaude txima luzedunak beren ilea korbatadun batek baino gehiago garbitzen dutenak.

Arazoa non dago? Heavy-ak, leku publiko batera heltzen direnean, bai billabesa batera, bai zinemara... denen ikusmira bihurtzen direla, jendea nagusiagoa eta helduagoa sentitzen baita, heavy-a baino.

Bitxiene da heavy bat, zinema atso baten ondoan ezertzen denean, honek bere poltsa heavy-aren ondok aldentzen duela, kendu behar diola pentsatzen baitu (gezurra).


Jendeak pentsatzen du heavy-ak drogazaleak direla,

baina ez dira konturatzen mafia eta zakarkeria guztia oso ondo jantzen den jendearen atzetik ezkutatuta dagoela.

Agian, gizarte honek utziko dio salatzeari, akusatzeari, bakoitzak duen jantzeko moduari erreparatzeari. Gezurra badirudi ere, oso zaila da heavy izatea, bakarrik kaletik entzun behar dutenarekin, beraiez egiten dituzten komentarioekin. Honez gain, heavy-ak familia handi bat dira, punk, mods eta rockabilly-ak gaintzen dituenak.

*Heavy hitzak, ingeleraz, astun esan nahi du. Heavy-ak esaten diegu musika bati jarraitzen dioten pertsonari. Heavy metal 70eko hamarkadan sortu zen estilo bat da.

KAZKARROAN

HITZ
GURUTZATUAK

EZKER-ESKUIA: 1.- ... egin, trebezia osoz egin. 2.- Haizen hori. Ipar Euskal Herriko eskualdea. 3.- Mehea. Interjekzioa. 4.- Noka, naiz. Erregeek buru gaineandaramaten zera. 5.- Kripton. Nazio Batuak. 6.- Zareten horiek. Latinez, berdin. 7.- Alderantziz, lutezioa. Aldamenera. 8.- Tankera. Ez eme. 9.- Atearen kanpoaldeak.

GOITIK-BEHERA: 1.- Toki hartan. Zaren horrek. 2.- Miraria. 3.- Lehenergoa. Geure. T bustia. 4.- Bizkaieraz, igo. Kabuz. 5.- Saldu aditzaren infinitiboa. Lurralde. 6.- Pluralean, oinarriko edaria. Ur korronte. 7.- Errepikatuz, gorotza. Ongi. Bokala. 8.- Izerdia erraz botatzen dutenak. 9.- Arnas ezak hil. Errepikatuz, zurrumurru.

N-57

Jenero Xumekoak

Andoni eta Koldobika aguretxean kontu kontari (II)

Amodioa azoka bezalakoa duk, Koldobika. Badituk esku beteka saltzen duten postuak, eta merkantzia bera izaki, bezerorik gabe daudenak. Batzuk solizitadisimos, abasto ezin emanez. Beste batzuk, berriz, eulikerietan. Eta zaharraren zaharrez merkantzia itsutu egiten duk, Koldobika. Fruta eta barazkiak kontu haundiz ibili beharrekoak dituk. Jakina, Koldobika, itxoiteak ere bere arriskua dik. Hik zer egin huen? Hori, Andoni, hori pertsonala duk.

JEREMIAS ERRO



BASAJAUN

Hilabete hauetan, txoko honetatik, gizarteak inguruarekin egiten dituen astakeriak, akatsak eta guzti salatu izan ditugu. Baina badaude esperientzi zientifiko eta komertzialak, soluziobideak edo irtenbideak bilatzeko benetako nahia izanik, egoera aldatu daitekeela ziurtatzen dutenak. Ez da dena izango kritika eta berri txarrak, eta horregatik hemen berri ona eta gure lurra berreskuratzeko lagungarriak diren aurkikuntzen berri emango dizugu.

Horrela, hiritar mugimendu ekologikoak larruekin aritzen diren enpresen gainean —arrisku larrian zeuden espezieen kontra jarduten zutenak— egindako presioari ezker, azken bost urtean aldaketa garrantzizkoak izan dira. Eta batzuk sinbolikoki hartu baldin badaitezke ere —marketing berdea modan dago— behintzat eskertzekoak dira, espezie batzuentzat oso ondorio onuragarriak izan baitituzte.

Igarabaren larruarekin, kasu, seta naturala eta gameluaren larria nahastuz ezaugarri antzekoak dituen imitazio bat lortu daiteke. Azeriarekin, alpakaren artilearekin imitatu daiteke lasai asko, eta mapatxe baten berokia zenbait ahuntzen barneko ilearekin egin daiteke. Bisoiak erraz asko parekatu daitezke angorako artilea ongi nahastuz gero. Guzti hauek abantailak dira, ordezkari hauek ez baitute animalien heriotza sortzen, prezioak ere franko bajuagoak dira, eta batzuek aurrekoek baino kontserbaziorako ezaugarri hobek dituzte.

Zaharrak berri

Geren faltak bizkarran, besteen faltak aurreko aldean.

Gure faltak ez ditugu ikusten, besteenak bai.

Urdiain

—Noiz jaio zinen zu?

—Ez naiz oroitzen, lo nengoela jaio nintzen eta.

Bizi Bizian

Nafarroako Parapsikologia Kongresuak hipnosia, OHE (objetu hegalarari ezezaguna), medium eta gisa bereko gaietan aditu eta zale franko bilduko ditu bihar eta etzi Iruñean, mota honetako egiten den lehen-dabiziko topaketan. Ezohizko fenomenoei azalpenak ematen saiatzen diren pertsona bitxi samar guzti hauek seriotasun eta sinesgarritasuna ekarri nahi diote, horrela, 1989tik lanbide gisa onartuta dagoen jarduerari.

Mamu txarrak uxatzen

PATXI ULAIAR / DESOIO

Iruñeko Iruña Park hotolean, bi egunetan zehar, medikuntza naturala, psikologia, OHE (objetu hegalarari ezezaguna), igarleak eta ohizko zientziaren bidez azalpenik ez dituzten hainbat arlori buruz adituak bilduko dira, gai honi buruz egiten den lehen-dabiziko kongresuan. Nafarroa aitzindari izango da arlo honetan, 1969an Estatu Batuetan parapsikologiari zientzia maila eman bazioten ere, oraindik gaur egun franko ezezaguna baita jarduera hau. «Nafarroan oso ohizkoak izan dira betidanik 'sorginen' kontrako erasoak —azaldu du Lice Morenok Nafarroako Parapsikologia Elkarteko zuzendariak—, baina profesionalak gara, eta kongresu honen bitartez gure lana ezagutarazi nahi dugu».

Bi egunetan izen ezagunak azalduko dira Iruñera eta larunbatean, arratsaldeko 19.30etan, Juan Jose Benitez ikerlari bilbotar eztabaidatua OHE eta bere ikerkuntzetan topatutako hainbat gertakizun ezohizkoei buruz ariko da. Igandean, arratsaldeko 18.15etan, Fernando Sanchez Drago idazle espainiar ospetsuak emango du hitzaldia lema erakargarri batekin: 'Ikustezinarekin izan ditudan harremanak'. Beraiekin batera, Emilio Fiel 'Miyo', Arco Iris elkartearen sortzaile eta bultzatzailea —horiatariko bat 1977an Lizason— eta Planeta Gaia elkarteko laguntzailea izango da igandean, eta Angeles Gramage Moyak 'errealitate paranormalarekin' izan dituen esperientzien berri emango du. Horretarako erakustaldiren bat ere egingo duela iragarrita dago egitarauan.

Parapsikologia lanbide gisa onartuta dago gaur egun, eta bertan era askotako terapiak —hipnosia, kinologia, astrologia, tarota— eta beste munduarekin lotutako gaiak biltzen dira. Lice Morenoren hitzetan «parazientzien eta terapiaren lanbidea da». Horrela, bertan batzen dira burmuinaren ezaugarrien ezagupena; parapsikologia modernoa —burmuinaren elektrizitatea,

hipnosia eta parapsikologiarekin batera doazen terapia guztiak—; eta horretaz gain, beste munduarekin lotutako hainbat gairen ezagupena: heriotzaren ondoko bizitza, berraragiztapena eta abar.

Historian zehar, zientziatik kanpo gelditzen ziren jarduera guzti hauek jendearengan jakinmina eta beldurra sortzeaz gain, aginte erlijioso eta zibilen zigorra ekarri izan dute beti. «Gaur egun —azaldu du Morenok— badakigu burmuinaren % 4 baino ez ohi dugula erabiltzen gizakiok, eta gainontzeko % 90 inguru lantzeko



Lice Moreno.

dagoela. Botere ezohizkoak dituenak, hain zuzen ere, gehiago landutako burmuina dauka. Ez dauka, beraz, zer ikusirik sorginekin. Barneko lana eta arrazaren bilakaerarekin lotutako gaia da, eta parapsikologia da, hain zuzen ere, gizakiaren ahalbideak ezagutu eta bultzatzea».

Burua eta adimenaren funtzionamenduari buruz azalpenak emateko sortu zen, mendearen hasieran, psikologia, hasieran hainbat zientzizigonen mesfidantzarekin. Urteen poderioz erabat finkatu zen, baina ez zen ezohizkoak ziruditen beste gertakerei azalpenik emateko gai izan. Hori dela eta, bere inguruan parapsikologia sortu zen eta 1969an Estatu Batuetako American Association of the Advancement of Science-k zientziaren maila eman zion.



«Erratzik gabe»

P.U. / DESOIO

«Ez gabilta erratzen gainean, eta ez ditugu patu txarrak kentzen. Halaber, ez ditugu jendeak uste dituen botere ezohizko eta magikoak. Profesionalak gara, eta parapsikologia lanbide bat da». Lice Moreno da iazko urrian sortu zen Nafarroako Parapsikologia Elkarteko presidentea, eta magikoa eta arraroa duen kutsu oro ezabatzen saiatzen da beraien jarduera azaltzen duenean. «Parapsikologoak parazientzien eta terapeutikaren profesionalak dira».

Desoio herrian —Urantzatik hamar bat kilometroa— duen etxean ere, ez da etorkizuna igeritzen duten horrelakoetan edo nork espero dezakeen toki misteriosu eta sinbolo esoterikoz betetakoak. Ez dira falta gorputzak banean gordetzen dituen indar eta eragin ezohizkoei buruzko koadro eta posterrak, baina liburuek, ordenagailuek eta apaletan

pilatuta dauden hainbat txosten eta artikulak seriotasun itxura ematen diote bere azalpenari.

Bera da Rigel Parapsikologia eta Medikuntza Alternatiboaren Akademiaren sortzaile eta zuzendaria, eta bertan arlo honetan profesionalak prestatzen saiatzen da. «Parapsikologoak ez du zertan, derrigorrez, ezohizko botereak izan behar», dio. EEB-Betan arlo honetako unibertsitate

ikasketak egin daitezke, sei urtetan, eta hemengo akademietan bi urte irauten dute ikastaroeak. «Denbora honetan profesional on bat atera daiteke, eta urtebete barru edo egun gauden 30 laguni 250 bat profesional gehitzea da gure helburua».

Izan ere, kongresu honen bidez, arlo honen inguruan dauden iritzi okerrak eta usteak ezabatzea lortu nahi du elkarteak. «Akademietatik ateratzen den jendea kiromanzia, tarota, astrologia, hipnosia eta abarreko arlotan lan egiteko gai da, baita gizakiaren ezaugarriak hobeki ezagutzeko ere». Topaketarako triptikoan azaltzen denez, bertan lanbidea jendeari ezagutarazi nahi zaio, eta azkenean normalduko den zientzia den ustea azaltzen du elkarteak. «gaizki ulertze eta esetsaldirik gabe, bistakoa denak, gero eta gehiago, gurea eta gure aurrekoen lanari sinesgarritasun osoa ematen baitio».

Estatu Batuetan unibertsitate mailako parapsikologia ikastetako egin daitezke, sei urtetan, eta iazko urrian Nafarroan sortu ziren akademietan bi urte irauten dute ikastaroeak.

Dick Rekalde

.....Pintorea

«Erakundeei saltzeko sasoiari gaude»

A.BARANDIARAN / LERANOTZ

EGUNKARIA.— Altxerri arte galeria bigarren aldiz joango da ARCOra, eta oraingoan zurekin bakarrik. Apustu handia da beraien aldetik. Horrek presiorik sortzen al dizu?

DICK REKALDE.— Bai. Askoz ere erosoagoa da ARCOra joatea artista talde baten erakusketaren barruan. Lanak aukeratu eta zintzilikatu egiten dituzu, eta ez duzu kritikek zer esango duten arduraz hori. Orain, ordea, erakusketak traketsa paratzen badut, ez da harremanik egingo, eta inbertsio osoa gal daiteke. Altxerri dirua galduko du ARCO, jakina, baina inbertsioa da beste galeriekin harremanak sortu eta bere artistak mugitu egiten baditu.

EGUNKARIA.— Eta zer izango da ARCO zuretzat?

REKALDE.— Arte garaikidearen azoka bakarra da, eta handiena gainera. Ohizko erakusketak bat egunero berrogei bat pertsonak ikusten badu, ARCOra milioi erdi bat joaten da. Hori oso garrantzitsua da, mundu hau ezagutzen duten pertsona asko izango baita. Orduan, publizitate aparta da. Hala ere, oso gaizki dabil komertzial aldetik eta galeria askok huts egiten du aurtun.

EGUNKARIA.— Izan ere, krisia aipatzen da, gehiegi zabaldu zela eta jatorrizko neurrietara itzuli beharra dagoela.

REKALDE.— Garbi dago Estatuan ez dagoela artelan bildumazalerik. Lehengo egunean aditu nuen Gasteizen hamabi zaletu bildu direla, eta hilero sartuko dute diru kopuru finko bat artista arabarren lanak erosteko. Ideia primerakoa da, eta horietariko gehiago izango balitz gutako askok salduko genituzke lanak, erakundeei urtean behin lan bat saldu beharrean. Gu orain erakunde ofizialei saltzeko sasoiari gaude.

EGUNKARIA.— Gainera, zuk ongi ezagutzen duzu hori, sari eta lehiaketa franko irabazi baitituzu.

REKALDE.— Nik sariak irabazi egin ditut, baina hori beste gauza bat da. Beti pintatzen aritu naiz, eta zortea izan dut sariekin, lehen ere horretarako pintura egokiagoa egiten bainuen. Espresionismoa egiten nuen...

EGUNKARIA.— Egin daitezke lanak lehiaketak irabazteko?

REKALDE.— Jakin daiteke zer den lehiaketa baterako egokiagoa. Lan kontzeptuala egiten duenak ez du sekulan lehiaketa bat irabaziko, baina espresionismoa egiten badu, polito samarra, eta handia, aukerak baditu. Epaimahaiak ordu t'erdian batean aukeratzeko dituzte lanak, eta hor ezin da denbora asko sartu koadro bakoitzarekin.

EGUNKARIA.— Eta lehiaketetik ihes egiterik ba al dago?

REKALDE.— Ez, ezin da. Nik gustura esango nuke baietz, baina... Orain dela gutxi irakurri nuen Barcelori egindako elkarrizketa bat, eta sekulan ez zela lehiaketa batera aurkeztu esaten zuen, eta gaizki ikusten zuela. Baina berak 24 urte zituela Documenta ferriara eraman zuten, eta hortik aurrera milioitik gora pezetan ari da saltzen bere lanak. Horrela bai!!

EGUNKARIA.— ARCO, beste galeriekin harremanak egiteko asmoa duzula adierazi duzu. Zein da galerien betekizuna artistak promozionatzeko?

REKALDE.— Galeria baten helburua bere artistak mugitzea da, horrela hauen balioak nabarmen igotzen duelako. Gero bildumazalea bilatu beharra dago. Orduan, galeria batek ikusten badu ARCO, sartutako diruaren truke bere erakusketak atzerrira eraman dezake eta gero handik beste artista bat ekar dezake, bada mugimendua sortzen da, eta merkatua

Gaur zabalduko dituzte atak Madrilen ARCO arte garaikidearen azokak, Europako ezagunen eta garrantzitsuenetakoa. Aurtengo edizioa Dick Rekalde pintore txantrearraren

lanak eramango ditu Altxerri arte galeria donostiarrak, Dieciseisekin batera Euskal Herriko partaide bakarra. Leranotzen lasaitasuna aurkitu duen pintorea lanei azken ukituak ematen harrapatu genuen.



Leranotz herrixkan «inoiz baino gehiago» lan egiten duela dio Rekaldek.

A.B.

zabaltzen da.

EGUNKARIA.— Nola ikusi duzu ARCO izan duen bilakaera?

REKALDE.— Iaz ez nuen oso ongi ikusi, gehiegikeria zegoelako. Kalitateari ez bazaio erreparatzen, soilik merkatuan oinarritzen bada, merkatu txikia egin daiteke, eta kitto. Kalitatea bilatzen bada, ondo legoke, adibidez, galeria bakoitzak bakarrik artista bat eramatea. Badaude hamabost artista eramaten dituzten galeriak, eta horietako hamar, esate baterako, ez dira interesgarriak. Orduan, erakusketak ez dauka interesik. Halaber, gehiegi nahasten dira estiloak. Edo arte garaikideko azoka egiten dugu, edo galerien azoka, eta azken hau

gertatu omen da azkenean.

EGUNKARIA.— ARCOra eramango dituzun lanak horretarako espreski prestatuak dira?

REKALDE.— Bai, eta lehendabiziko aldiz lortu dut hasieratik amaieraraino buruan neukan proiektuari eustea. Horrela askoz gehiago konplikatzen da dena, baina askoz ere gusturago gelditu naiz. Hiru dimentsioko lanak dira, arkitekturarekin lotuta, baina eskulturaren munduan ere sar litezkeenak. Hala ere, kolorez beteta daude, eta nere ikuspuntutik pinturak dira, ez ordea koadroak.

EGUNKARIA.— Apaingarriztat har litezke?

REKALDE.— Bai, jakina.

EGUNKARIA.— Eta horrek ez dio

kutsu gutxieslerik ematen?

REKALDE.— Ez, inondik inora. Apaingarririk polita bada, ez. Hori bai, paretak betetzeko bakarrik baldin bada, gutxieslea da. Jende askok egiten du apaingari lana. Are gehiago, niri gustatzen zaizkidan artista gehienak, horretan ari dira lanean. Ordea, zerbait itsusia, apaingari ez dena, eta ona... ezin dut imajinatu.

EGUNKARIA.— Zu zure lanari esker bizi zara. Pribilegiatua sentitzen zara?

REKALDE.— Arte Ederrak bukatu genduen artean artetik bizi naizen bakarretakoa naiz, eta pribilegiatua naiz, jakina, baina ez dut ezer saltzen (barrezka). Zorrei esker bizi naiz.

NOSKI
JATOR

ZVLD* ERQA

